

dela egongo «balentzianoz» edo «katalanez» jakitea. Herriak ez omen du eskatzen eta apez-jendeak ez omen du beharrik ikusten.

Autonomiarekin eta «balentzianoa» eskoletara eraman nahi bada izango al du indarrrik aski hizkelgi «katalanaren indarrari» aurpegi emateko? Argi dagoena zera da: Katalunyan sortu den hizkuntza batua eta eta hizkuntza berorren hizkelgi balentzianoa, ez direla berez batu eta ezta batuko ere. Euskalkien hazkunde eta bilakaera hutsez euskara batuko dela uste duenak ere baduke zer pentsa. ■ *Manolo Pagola.*

Udara begira...

Azken urteotan udalekuak hartzen diharduten bizitasuna argia da denontzat. Udaldia iristean ikastolak, parrokiak eta beste zenbait erakundek babesturik egun batzu lagunartean eta atsedean gisa igarotzera joateko aukera ederra izaten dute gaztetxoek, lekua, giroa eta ekintza aldatuz.

Hegoaldean Nafarroa, Errioxa eta Araba aldera jo ohi dugu gehienetan udalekuen bila. Era berean esan beharra dago Iparraldera oso joera guti izan dugula, eta izan dugunean ere frantsesa praktikatzeko izan dela.

Euskaldun guztiontzat da beharrezko elkarren berri jakitea hizkuntza, ohitura eta kultura mailan. Haurrei, ikastolan dabilzanezi eta ez dabilzanezi, mesedegarri zaie «beste» Euskadi ez ezagun horren berri jakitea. Muga guztien gaindi Ipar eta Hego aldeko gaztetxoak elkarrekin ikusi nahi genituzke. Lehen elkarrekiko izan ez ditugun harreman horien hutsunea bete beharra dago; honela, geroko euskaldunek ere gaztetandik hasitako harremanak izango dituzte kultura, ohitura, kezka eta hizkuntza mailan lana elkarrekin egiteko. Eta gero gerokoak.

Une honetan onuragarri litzateke Ipar eta Hego aldeko jendez osaturiko udaleku bat. Honak zera esan nahi du: antolatzaile, arduradun eta haurrak bi aldetakoak beharko luketela izan.

Posible ote da euskal udalekuentzat mugak haustea? ■ *Antonio Iraola.*

LANTZEN, ELA-ren aldizkari sindikala sortu da

Ohartxook idazten ditugun momentuan, LANTZEN aldizkari sindikalaren 2gn. zenbakia kalean da, ELA/STV-ek aterea. Zuzen-

daria, Jose Elorrieta. Redakzioa, Euskalduna, 11 1.º, Bilbao-8. Hamasei orrialde zenbaki bakoitzak. Aldizkaria erdaraz dator, zertxobait euskaraz.

Lehendik badu ELA-k bere «ELA/STV Sindikal Astekaria», *astekaria* alegia, dagoeneko 50gn. zenbakia pasata dihoana. LANTZEN bestelako proiektua da: informaziokoa baino gehiago formaziokoa. Astekariak baino hilabetekariak egokiagoa bait dirudi eginkizun horretarako.

LANTZEN honen helburu bat, hain zuzen, «langile guztiok geure egoera sakontzea eta bideak bilatzea» da, Alfontso Etxebarriak aurkezpenean agertzen digunez. Eta bada hor gauza bat seinagarria: sindikalistentzat, baina sindikalistek berek egina izatea. «Askotan entzun dugu —azaltzen digu aurkezpenak— langileen helburuak ipintzea politiko edo intelektualan lana dela. Nire ustetan, hori parte bat da, baina guk sindikalistok, beste zati handi bat ipini behar dugu, eta horretarako ez dago beste modurik, geure bideetan sakontzea baino».

LANTZEN, beraz, «una revista de militantes sindicalistas» duzu alde bietatik, irakurleenetik nahiz egileenetik. Langilearen arazoetan sakontzeko responsabilitatea ELA-k bere gain hartu nahi du: eta ez «intelektualei» edo utzi; ez eta Alderdi «proletarietari» ere... Izan ere, hori egin izanak, sarriegi hori egin izanak, zenbat aldrebeskeria sortu duen, langileriak berak daki inork baino hobeto. Besteak beste, Alderdiarentzat oso komodoa izan da, langileriaren estrategia eta, berak markatu behar omen zituztelako, sindikatoen bizkarretan jaun eta zaldun ibiltzea: langileak berriz ere morroin, eta berak hain zuzen nagusi berriak altxatzen. Eta, besteak beste, hainbeste intelektualek bere burua langileriaren defentsa teorikotara dedikatu digunez gero, langileriaren teoriok askotan ez dakigu zer ikusi behar duten langilearen egiazko errealitatearekin: langilearen arazoeekin, —eta ez lantokikoekin bakarrik; langilearen pentsatzeko modu propioekin.

Ez dago zergatik ezer esan teoria orokar eta unibertsalen kontra. Beharrezkoak dira. Baina LANTZEN-ek egunoroko esperentzia sindikaletik, konkretutik, nahi du konklusio orokarretara poliki-poliki iritsi; eta ez teoria orokar unibertsaletatik errealitate sindikalera jaitsi, goitik behera. Hankak lurtean beti. Horregatixe, munduan bestelako ikuspegirik franko kabitzen da, baina ELA-k ikuspegi sindikaletik ihardun nahi du berak. «Nosotros, los de ELA, siempre hemos entendido que somos todos los trabajadores y sindicalistas los que hemos de elaborar el proyecto sindical analizando y examinando los fenómenos actuales de nuestra sociedad y dando una respuesta adecuada precisamente desde la perspectiva sindical».

ELA-k ez du bere bidea batere erraz egin. Hasieretako nekeak alde bat utzita ere, gerra ondoan, eta frankismoaren azken urteetan, eta «demokraziaren» hasieran, ez da egongo beste sindikato bat.

langilieriaren «intelektualen» eta politiko «proletarien» burla eta kritika gehiago izan duenik. Inor bada, ELA izan da, prestamotatik bizitzerik izan ez duena. Izan, proiektu sindikal denak izango ziren kritikagarriak; baina historigintzak eta kritikak *Eusko Langileen Alkartasuna* baino zorrotzago hartu duten beste Sindikato bat ez dakigu, euskal giroan bertan. Halare ELA-k aurrera egin du. Zabaldu eta indartu bada, edo gehiago zabaldu eta indartu ez bada ere —Nafarroan, esate baterako— euskal arazoetaz iharduten ginen besteok asko lagundu diogulako behintzat ez da izan. Berak ibili behar izan du eta berak bilatu behar izan du bere bidea. Ondo bere-bereak ditu bere indarrak.

ELA-k, errespetorik ez zitzaion giro batetan, sartu egin du errespetoa. Eta gaur ELA-ri edonon errespetoa baldin bazaio, lanak eta bere seriotasunak eman diona da.

Halare, ELA-k badaki, beti gehiago dela egiteko dagoena, egin dena baino. Ekainean bere IVgn. Biltzarra egitekotan da (ez du gu esango «ospatu», «zelebratu» egingo duenik, ez bait da jaialdi bat izango, lanaldia baino). Euskaldun langilearen geroak kezkatzen gaituenok, interes adina esperantzaz begiratzen du gu hara. Ez bait du gu dudarik egiten pauso haundi bat izango dela euskal langilieriaren historian. Langile mogimendua, sindikala bereziki, eremu hertsia bat gerta ez dadin gizartean, baizik eta gizarteko beste ekintza molde, erakunde, mogimendu guztiekin lotu-loturik ibil dadin, egiteko haundia dute komunikabideek, idazleek, historigileek, ikastetxeek. Sindikatoek ez daukate sindikatoei berei bakarrik interesatzen zaien gauza bat izaterik. Sindikatoak denoi interesatzen zaizkigu, sindikatoekin zuzen-zuzenean behintzat zerikusirik ez dugunoi ere. Ikastetxeetan, esate baterako, konferentziak eta filminak antolatzen diren bezala Patagoniako floraz eta faunaz, hitzaldiak antolatu beharko lirakeke ekintza sindikalaz; elkarriketak antolatu beharko lirakeke, ikasle eta sindikalisten artean, etab. Gutxienez Alderdiekin eta politikoekin egiten diren elkarriketak bezain probetxugarriak izango lirakeke. Ez bait dirudi oso arrazoizkoa, gure mutilek eta neskek eskola urteetan zeruko eta lurreko komeria denak entzutea, baina azkenean ekintza sindikalaren informazioerik batere gabe uztea eskola, lantokian buruz behera sartzeko.

Ez langileek bakarrik: denok daukagu, gizarte osoak dauka, sindikato sendo, serio eta erantzuneko baten premia. Ez da aski langileek beren erakunde bat edukitzea, apuroan daudenean apurorik ateratzeko. Hori ere bai: zeren eta, holakoetan langileak berak momentuan irabaz dezakeenaz gainera, indar errebindikazale borbiz bat gabe, ez ekonomia moderno batek, ez gizarte pluralista modernoak, bait daukate behar bezala funtzionatzerik, arin eta garbi eta bakean, bake erlatibo samarrean bada ere. Alabaina, sindikatoak askoz gehiago eman diezaiokie langileari, eta —langileari emanez— gizarteari: langileari responsable, organizatu, kontziente bat, ardi zozo edo ahuntz zalapartari taldeen orde. Gizarteak, ondo ibiltze-

ko, langileria responsable eta aktibo bat behar du, egiteko sozial guztietan ondo finkatua. Baina gizartean, langilea, bere sindikatoan situatzen da ongienik. Sindikatoan, eta beti ikuspegi sindikalistaz baliatuz, ikasi behar du langileak gizartearekin josten, bat egiten, gizartean parte hartzen, bere esperentziaren eremutik beste eremuetara irekitzen eta ailegatzten: politikara, kulturgintzara, Deretxora, musikara, zinemara... LANTZEN aldizkariak badu bere sailtxoa, zinemaz, musikaz, liburugintzaz, llabur-labur berri emateko: eta langileari interesatzen zaion kriterioz emateko, zorionez. Badu bere sailtxo politikoa (Estatutuari buruz 1go zenb.; hauteskundeei buruz, 2gnan), etab. Gauzak langileari interesatzen zaion moduan eta alderditik eginda. Hau da, sindikalistaren ikuspegia inoiz galdu gabe. LANTZEN, halare, gehien-gehienbat arazo laboralez ari da, bidezko denez. Eta langileriaren egoera, helburuak, argitzeko eta sakontzeko asmoz, hain zuzen. «El militante sindicalista acostumbra a vivir intensamente los problemas diarios con riesgo de olvidar la proyección hacia el futuro, de discutir, problematizar, investigar y elevar, en fin, sus conocimientos globales que son imprescindibles porque, a fin de cuentas, son los que sirven de guía a las decisiones cotidianas». Eta horretantxe nahi dio LANTZENek langileari lagundu.

LANTZEN aportazio haundi bat izan daiteke: euskal sindikalismoari, aurrenik; baina gero, eta ez gutxiago, euskal gizarte osoari. E.L.A-ren esperantza: «beste pauso haundi bat eman dugu LANTZENekin», gure esperantza da orobat: euskal gizartean berez dagoen tokia, eginkizuna, geroz hobeto bete ahal izan ditzan euskal langileak. ■ *Joxe Azurmendi.*

Hamar urtetik hamar urtera, ideologia berri bat?

1950eko testuak aztertu eta esistentzialismoaren orduko gora nabaritzen duzu euskal letretan: 50 inguruko «modako ideologia». Orduan, Luis Mitxelenak berak, euskal letren biderakusleak, bera esistentzialistatik ez zela, hola adierazten zituen euskal literaturako eginbeharrak:

Eta euskara biziko baldin bada —eta gure aurrekoena ez baina geure izaera benetan azalduko baldin badugu—, gure herrietako biziera nahasia euskaraz jarri behar nahi ta ez: gaurko ezinegona, bizibeharra eta ezin bizia, handi-nahia, diru-gosea, maitasun-gorrotoak; gaurko gizonen ametsak, zuhur edo zoro; ezerezaren gau beltzean —hiltzeko sortua—, nondik datorren eta zertarako den ez dakienak daraman huskeriazko ibilera galdua eta bera baino